

- Patata frijituak gogotik gustatzen zaizkit, eta eskutada bat errefau eta **bi sosen** patata frijituak eta bazkalduta nago.



- Gizon haren santu egunean, Quenuk lore sorta bat eramaten zion, eta **hamar soseko** txanpona jasotzen zuen.

Émile Zola, *Parisen sabela*, 2004.
Euskaratzailea: Karlos Zabala.
Donostia, Alberdania-Elkar

-EN eta -KO atzizkiak eta diru-balioak:

Halako balioak adieraztean, esanahi-desberdintasun nabarmena dago, bietatik zein erabiltzen den.

- **Bi sosen patata frijituak** = Bi sosen truke ematen duten patata frijitu kantitatea
- **Hamar soseko txanpona** = hamar sos balio duen txanpona



sos 1 iz. Liberaren hogeirena balio zuen txanpona.

libera 1 iz. Frantziako eta Belgikako diru unitatea, euroa ezarri zen arte.



Hortaz, noiz erabili **-EN** eta noiz **-KO**?

- Zerbaiten balioa guztira zenbat den adieraztean, **-EN**:
 - **Hogeita hamar euroren** gasolina. (Hogeita hamar euroren truke ematen dutena).
 - **Bi euroren** gaztainak.
 - **Bost euroren** txurroak.
 - **Hiru pezetaren** karameluak.
 - *Erreal biren pupua ta bi pezetaren trapua.* (Esr. zah.)

Hortaz, noiz erabili **-EN** eta noiz **-KO**?

- Unitatearen prezioa adieraztean, **-KO**:
 - **1,33 euroko** gasolina. (Litroak 1,33 euro balio du).
 - **Hamalau euroko** txakolina. (Botilak edo dena delako unitateak 14 euro balio du).
 - **800.000 pezetako** boiler zuria. (Kiloak edo dena delako unitateak 800.000 pezeta balio du).



pezeta iz. **Espainiako diru unitatea, euroa ezarri zen arte.**



Diferentea da esanahia adibideotan, bi atzizkietatik zein erabiltzen den:

- **3.722 milioi euroren akzioak salerosi ziren.**
3.722 milioi euroko akzioak salerosi ziren.
- **200 eta 1.000 euroko akzioak jaulkiko dituzte.**
200 eta 1.000 euroren akzioak jaulkiko dituzte.

OHARRA

Traolak (#) esan nahi du perpausa ez dela pragmatikoki egokia, gramatikala izan arren. Testuingurua eman ez gero, orduan erabil liteke.

Gehiago jakiteko:

Arrarats, Irene (zuz.; koor.) (2013). *Estilo liburua*. Andoain: Berria.

Petirena, Patxi (2011): "6.2.2. Neurriak: «hamar euroko kafea» eta «hamar euroren kafea". In *Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak*, EIMA, Gasteiz, 166. or.

